



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 25ean

6 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—2001eko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea. Akats zuzenketa (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Irakaskuntza ez unibertsitarioko ikastetxe publikoetako leku beharrei eta obren plangintzari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).

—Corteko ureztatzeko ubideetan izandako zenbait isurketa librerri buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

—Toki entitateen egintzak eta erabakiak kontrolatzeko mekanismoei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

—Nafarroako Oihan Planari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

I SAILA:

Parlamentuko Jarduera:

—2000ko abenduan egindako bilerak (18. or.).

—Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean 2000ko abenduan sartu diren dokumentuen zerrenda (19. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

2001eko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea

AKATS ZUZENKETA

2001eko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeko kontabilitate lerroetan sarturiko aldaketetan akats bat antzeman da. Lege hori 2001eko urtarrilaren 4ko 2 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Ondoren zuzentzen da aipatu akatsa:

25 zenbakiko in voce zuzenketan –31. orrialdean– “hona mugitzea: 84100/7700/3222, 81001 proiektua” esan ordez, zera esan behar da: “hona mugitzea: 81001 proiektua”.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

F saila:
GALDERAK

Irakaskuntza ez unibertsitarioko ikastetxe publikoetako leku beharrei eta obren plangintzari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan Antonio Andión Gastón jaunak irakaskuntza ez unibertsitarioko ikastetxe publikoetako leku beharrei eta obren plangintzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko uztailaren 6ko 59 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko irailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan Antonio Andión Gastón jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du irakaskuntza ez unibertsitarioko ikastetxe publikoetako leku beharrei eta obren plangintzari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1gn. HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO ZENTROAK

Altsasu: "Navarro Villoslada" Haur eta Lehen Hezkuntzako IP

Eraikina handitzea planteatu da; azterlan bat eginen da berehala, eta beharrezko buruzko programa bat egiteko zain gaude. Udalarekin proiektu hori egiteko modua eta nolako partaidetza finantzarioak egonen diren negoziatu behar dugu, Udalak aldi baterako lagatako eskola-eraikin bat dagoelako, sortu diren beharrak betetzeko balio lezakeena.

Antsoain: IP handitzea. Urte batzuen buruan gertatuko diren beharrak aztertzen ari gara, haur hezkuntzako unitateetan gertatzen ari den matrikulazio igoeren arabera.

Burlata: "Ermitaberri" IP

– Eraikin aurrefabrikatu bat instalatzea, 8 ikasgela arrunt hartzeko adinakoa.

2000ko abuztuaren bukaeran egin zen.

Instalazio horrek hurrengo 2 edo 3 urtetan planteatutako eskolatze beharrei erantzunen die.

– Haur eta Lehen Hezkuntzako beste ikastetxe bat eraikitzea; haren eredia ikasturtean zehar zehaztu beharko da. Halaber, beharrezkoa izanen da betebeharrei buruzko programa bat egitea, proiektua egin ahal izateko, behin ikastetxe eredia erabaki denean. Dotazioetarako lurzati bat badago, nahikoa eta egokia.

Castejón: Castejónko "Dos de Mayo" IParen beharra lekuak berrantolatzea baizik ez da; hori erraz egin daiteke, matrikularen egungo egoera ikusita. Haurren datu demografikoak, egiazta daitzkeenak, ikusita, ikastetxe horrek leku nahikoa du unibertsitatez besteko araubide orokorreko ikaskuntzetan ari diren ikastetxeek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri zituen ekainaren 14ko 1004/91 Dekretuak eskatzen dituen guztiak betetzeko.

"Sukaldea" (ez zen inolaz ere sukalde bat) esaten zutena birmoldatu da, eta fisioterapiako gela izateko moduan jarri da. Eraikinaren funtzionaltasun "arazoak" konpontzeko beste bide egoki batzuk ere proposatu zaizkie; horietako batzuei uko eman diete eta beste bat (antzinako laborategian horma mugikor bat jartzea espazioa bitan banatzeko hala nahi denean) "aztergai" dute.

Lizarra: "Remontival" Haur eta Lehen Hezkuntzako IP

1. fasea:

– Beheko solairua zaharberitzea. 1999ko udan egin da.

2. fasea:

– Lehen solairua zaharberitzea. 2000ko udan egin da.

– Eraikina handitzea.

– Egiten ari da.

2000-01. urteetan egingen da.

3. fasea:

Bigarren solairua zaharberitzea, egoitzak osatzea eta egokitzea.

Ezarritako epea: 2001eko uda.

Uharte (Iruña): beste ikastetxe bat eraikitzea, Udalarekin lorturiko hitzarmenari jarraituz. Ezarritako epea: 2001 urtea.

Lekunberri: beste ikastetxe bat eraikitzea, Lekunberriko eta Larraungo udalekin hitzarmena eginda. Kasu honetan, beste eraikin bat egitea planteatu da, leku beharregatik baino (izan badaude, baino gutxiago), eraikinaren egoerarengatik (oso hondatuta dago) eta Udalak dituen hiritzinta-planengatik. Nafarroako Kirol eta Gazteriarren Institutuak parte hartzea aztertzen ari da, eskola eta kirol instalazioak multzo bakarrean jartzeko.

Lanak 2001-2002 urteetan egingen dira.

Lodosa: “Angel Martínez Baigorri” IP

2 lerrotarako ikastetxea egokitzeko zabaltze eta zaharberitze lanak, matrikulan gertatzen ari den bilakaerari erantzuteko.

Iruña-Mendillorri: Eraikin berria, Goiko Mendillorri kokatuta dagoena, ondoko epetan egonen da baliatzeko moduan:

– Iparraldeko hegala: 2000ko irailaren 9an. A-G eredia hartuko du.

– Eraikinaren gainerakoa eta instalazio osagarriak: 2000ko irailaren bukaeran.

– D eredia (ikasturtea Beheko Mendillorri dagoen eraikin modular aurrefabrikatua hasi duena) urriaren lehenbiziko egunetan aldatuko da behin betiko lekura.

Iruña: “San Francisco” IP (San Francisco eskolak).

Ikastetxe hori “Teresatarrak Ezpeletaren jauregira” aldatzea, hura zaharberitu ondoren.

Proiektua prestatzeko fasean dago. Lanak 2000ko abenduan edo 2001eko urtarrilean hasiko dira.

Zizur Nagusia: A-G ereduko eta D ereduko egungo ikastetxeek osatzen duten eskola-multzoaren zabaltze eta egokitzea 3 fasetan egingen da:

– 1. fasea: D eredia dagoen eraikina zabaltzea. Lanak aurreratuta daude.

Ezarritako gutxi gorabeherako epea. 2001eko urtarrilaren amaiera.

– Jantokia eta sukaldea egokitzea 5 ikasgela berri jartzeko.

Lanak bukatuta daude eta erabiltzen ari dira.

– Eraikin zentralerako beheko solairuak egokitzea (gaztelaniazko eredia), behin behineko jantoki bihurtzeko (jantoki gisa erabiliko dira behin betiko jantokia egin arte).

Lanak bukatuta daude eta erabiltzen ari dira.

– Ikasgela modularrak dituen eraikin aurrefabrikatua berriz jartzea.

Lanak bukatuta daude eta erabiltzen ari dira.

2. fasea:

– A-G ereduko Haur Hezkuntzako eraikina handitzea eta behin betiko jantoki bat egitea aurrekoaren orde.

– D ereduko eraikin nagusiko administrazio lanetarako aldea eta bulegoak egokitzea.

– Ikasgelak osatzea eta lekuak egokitzea, bai ikastetxe barruan eta bai kanpoan ere, eraikin guztietan, behar diren dotazioak osatu arte. Hona zer behar den:

D ereduko 3 lerro (27 eskola unitate).

A-G ereduko 4 lerro (36 eskola unitate).

2. faseko obrak bi urtetan egingen dira, 2001-02. urteetan.

Zerrenda horretaz gainera, kontuan hartu behar dira beste obra “txiki” batzuk, toki entitateek (udalak eta kontzejuak) zuzenean egiten dituztenak, hain zuzen ere instalazioak egokitu eta hobetzeko. Obra horietako asko egiteko diru-laguntzak ematen dira, urtero horretarako Nafarroako aurrekontu orokorretan jaso eta egiten diren deialdiak aplikatuz.

Hona ekitaldi ekonomiko honetan egingo eskariak eta emandako laguntzak, deialdiak ebatzita.

Eskarien zerrenda

Eskatutako diru-laguntzak (2000ko deialdia)

Udala/Herria	Ikastetxea	Diruz lagundutako obrak	Eskariaren data	Eskatutakoaren aurrekontua	Emandakoa?
ABLITAS ABLITAS	"José Luis Arrese" IP	IP egokitzea. 4. fasea	00/04/28	7.961.183	Bai 7.961.183
OIBAR OIBAR	"Gabriel Valentín Casamayor" IP	Segurtasun-arauetara egokitzeo obrak	00/05/8	1.364.015	Ez 1.364.015
ALTSASU ALTSASU	"Navarro Villoslada" IP	(**) IPko arotzeria berritzea (**) IP berritu eta handitzea. 1. fasea (**) IP berritu eta handitzea. 2. fasea (**) IP berritu eta handitzea. 3. fasea	00/05/10 00/05/10 00/05/10 00/05/10	15.711.694 52.849.304 170.177.768 14.993.000	Ez Ez Ez Ez 253.731.766
ANTSOAIN ANTSOAIN	"Ezkaba" IP	Baratzeko hesia, bideo-gelako intsonorizatzea, eskaileretako, IP	00/05/5 00/05/5	1.497.804 1.280.640	Ez Bai 2.778.444
AÑORBE AÑORBE	IP	Berokuntza sistema elektrikoaren ordeztu gasezkoa jartzea	00/05/5	1.431.208	Ez 1.431.208
AGOITZ AGOITZ	"San Miguel" IP "Mariano García" musika eskola	Handitzea Musika eskola egokitu eta hobetzeko lanak	00/05/8 00/05/8	24.708.000 21.609.930	Ez Ez 46.317.930
ARANTZA ARANTZA	IP	Pilotalekuko aurrealdea itxi eta egokitzea, arriskuak ebaluatuta	00/05/8	3.033.864 3.033.864	Ez
ARBIZU ARBIZU	IP	Hobekuntza lanak	00/05/5		Ez
ARESO	IP	Kanpoko itxitura konpontzea; kanpoko zoruak ordeztu eta konpontzea.	00/05/5	4.192.008	Bai
ARRONITZ ARRONITZ	IP	Hobekuntza eta konponketa lanak Lan arriskuei konponbidea ematea Proiektuaren ordainsariak eta aurreko lanen zuzendaritza IParen zementazioaren oinarriak konpontzea	00/05/8 00/05/8 00/05/8 00/05/8	6.715.489 4.290.733 1.575.950 7.099.205	Ez Ez Ez Bai 19.681.377
ARTAXOA ARTAXOA	"Urraca Reina" IP	Kontraleihoak jartzeko lehen fasea	00/05/8	2.168.385	Ez 2.168.385
AZAGRA AZAGRA	"Francisco Arbeloa" IP	Berokuntza instalazioa berritzea. 1. fasea Berokuntza instalazioa berritzea. 2. fasea	00/05/5 00/05/5	6.000.000 6.765.061	Bai Ez 12.765.061
BARAÑAIN BARAÑAIN	"Alaiz" IP "Eulza" IP "Los Saucos" IP	Behoko solairuko berokuntza konpontzea Larrialdietarako atearak Erabilera anitzeko aretoko entzute-sistema egokitzea Larrialdietarako eskaileran babesa jartzea Patioa estaltzea Komunak berritzea Arkitektura oztopoak kentzea Komunak berritzea. 2. fasea Larrialdietarako argiak eta PCla Jantokia zabaltzea	00/05/4 00/05/4 00/05/4 00/05/4 00/05/4 00/05/4 00/05/4 00/05/4 00/05/4 00/05/4	6.656.685 2.363.008 1.662.886 784.392 44.624.591 15.512.116 4.839.988 4.810.286 8.633.467 5.944.838	Ez Bai Bai Bai Ez Bai Ez Ez Ez Ez 95.832.257
BAZTAN ALMANDOZ	IP	IP egokitzea eta klimatizatzea	00/05/5	2.519.435	Ez
ELIZONDO	"San Francisco Javier" IP	Kanpoko komunak berritzea Berokuntza-hodiak egokitzea eta IPko A.C.S.ak Larrialdietarako atearak jartzea, patioko zoruak jartzea, bereizteko manpara	00/05/5 00/05/5 00/05/5	3.299.510 1.363.093 6.108.017	Ez Ez Ez

Udala/Herria	Ikastetxea	Diruz lagundutako obrak	Eskariaren data	Eskatutakoaren aurrekontua	Emandakoa?
ERRATZU	IP	Arkupe-aterpe bat eraikitzea eta aisiarako patioa egokitzea	00/05/5	6.653.498	Bai
GARTZAIN GARTZAIN	IP	IPko pilotalekuko sabaia konpontzea IPko sabaia konpontzea	00/05/5 00/05/5	8.260.323 4.633.443	Ez Bai
					32.837.319
BERA BERA	"Ricardo Baroja" IP	Pasiloak pintatzea Ikastetxeko berogailuetan detentoreak jartzea Metalezko ateak, metalezko solairuartea eta pilotalekuan sare bat jartzea Sotoa haizeztatzeak, hezetasuna saihesteko Sotoko egitura konpontzea Eskolako patioan haurrentzako jolastokia jartzea	00/05/8 00/05/8 00/05/8 00/05/8 00/05/8 00/05/8	540.374 458.780 5.249.203 1.044.000 4.234.000 1.201.718	Ez Ez Ez Ez Bai Ez
					12.728.075
BERIAIN BERIAIN	IP	Eskolako patioa egokitzeko eta zorua jartzeko obrak egitea, landaketarik gabe eta aulkiak konpondu gabe. Haur hezkuntzako ikasgelan kortexoa eta pileta bat jartzea. Patioa konpontzeko 2. fasea, zuhaitzak landatzea eta aulkiak	00/05/3 00/05/3 00/05/3	9.268.864 837.184 1.296.416	Bai Ez Ez
					11.402.464
BERRIOZAR BERRIOZAR	"Mendialdea" IP	Ikastetxeko aldagelak egokitu eta zabaltea.	00/05/8	7.091.384	Ez
					7.091.384
BURLATA BURLATA	"Hilarión Eslava" IP	Hilarión Eslava IPa kanpotik ixtea.	00/05/5	3.000.000	Bai
					3.000.000
CABANILLAS CABANILLAS	"San Juan de Jerusalem" IP	Arkupea eraikitzea Fatxadak pintatzea eta kanpoko arotzeria	00/05/5 00/05/5	9.176.350 4.042.737	Bai Ez
					13.219.087
CÁRCAR CÁRCAR	"Virgen de Gracia" IP	2. faseko ordainsariak. Aldagelak eta fatxadak pitzadura konpontzea; aurrea hartzeko konponketak	00/05/5 00/05/5	493.000 7.947.114	Ez Bai
					8.440.114
ZARRAKAZTELU ZARRAKAZTELU	"Virgen de la Oliva" IP	Aspertsio bidezko urreztaketa jartzea eta belarra landatzea	00/05/5	567.400	Ez
					567.400
CASCANTE CASCANTE	"Vicenta María" IP	Berokuntza instalazioa berritzea eta zenbait konponketa	00/05/8	9.256.077	Ez
					9.256.077
CORELLA CORELLA	"José Luis Arrese" IP	Haur hezk. eraikineko hormaldeak konpontzea. 2. fasea Haur hezkuntzako eraikineko sarbideak eta aparkalekua 1. faseko hormaldeak konpontzea eta Haur hezkuntzako eraikineko sarbideak hobetzea.	00/05/8 00/05/8 00/05/8	3.828.000 9.430.100 8.730.452	Ez Ez Bai
					21.988.552
CORTES CORTES	"Monte de la Cruz	Haur hezkuntzako eraikina egokitu eta zabaltea	00/05/5	49.339.231	Ez
					49.339.231
ERRO ERRO	"San Esteban" IP	Teilatu-hodiak eta zorrotzenak konpontzea Berrikuntza eta zabalte lanak	00/05/8 00/05/8	694.360 9.527.080	Bai Ez
					10.221.440
LIZARRA LIZARRA	"Remontiva" IP Esc. De Música "Julián Romano"	Lehen solairuko komunak berritzea Pintatzea, moketazko zorua jartzea eta persiana veneziarrak	00/05/5 00/05/5	10.527.766 3.058.224	Bai Ez
					13.585.990
ETXALAR ETXALAR	IP	(**) Zenbait konponketa, arriskuek ebaluatuta	00/05/11	377.000	Ez
					377.000
EZKAROZE EZKAROZE	"Valle de Salazar" musika eskola	Bi ikasgela egokitzea	00/05/2	3.929.844	Ez
					3.929.844

Udala/Herria	Ikastetxea	Diruz lagundutako obrak	Eskariaren data	Eskatutakoaren aurrekontua	Emandakoa?
FUSTIÑANA FUSTIÑANA	"Santos Justo y Pastor" IP	Kanpoko arotzeriak ordeztzea Berokuntzarako galdara ordeztzea	00/04/11 00/04/11	1.213.128 1.050.892	Ez Ez 2.264.020
IGANTZI IGANTZI	IP	Gimnasio berria eraikitzea eta gimnasioan bi ikasgela egitea	00/05/8	11.327.400	Ez 11.327.400
IRURTZUN IRURTZUN	"Atakondoa" IP	Berokuntza-instalazioa berritzea. 1. fasea Berokuntza instalazioa berritzea	00/05/5 00/05/5	8.228.340 20.521.921	Bai Ez 28.750.261
ITUREN ITUREN	IP	Leihoetan barroteak jartze, zoruak bernizatzea eta beste zenbait lan	00/05/6	553.700	Ez 553.700
LAKUNTZA LAKUNTZA	"Luis Fuentes" IP	Teilatua berritzea	00/05/8	8.942.134	Ez 8.942.134
LARRAGA LARRAGA	"San Miguel de Larraga" IP	Handitzeko proiektuaren erredakzioaren ordainsariak	00/05/8	4.549.474	Ez 4.549.474
LEITZA LEITZA	IP	2000ko obren ordainsariak Jangelako eraikineko inguruko drainadura jartzea Kanpoko itxiturak ordeztzea; leihoetan sareak jartzea	00/05/8 00/05/8 00/05/8	169.033 1.494.692 2.731.120	Ez Ez Ez
LERÍN LERÍN	"Doña Blanca de Navarra"	IP zabaltea, 0 eta 3 urte bitarteko zikloa jartzeko	00/05/5	18.867.675	Ez 18.867.675
LESAKA LESAKA	"Irain" IP	IParen eraikineko egituraren eta fatxadaren konponketak egitea Laneko segurtasunari buruzko txostenaren araberako konp. Txostena egiteko ordainsariak eta laguntza teknikoaren zuz. Jantokiko teilatua konpontzea IParen pilotalekuko teilatua konpontzea Eskailerako manpara ordeztzea	00/05/5 00/05/5 00/05/5 00/05/5 00/05/5 00/05/5	3.030.844 1.530.776 484.880 1.996.202 5.761.795 1.476.389	Bai Ez Ez Bai Ez Bai 14.280.886
LEZAUN LEZAUN	IP	Barneko eskailera egitea eta galdaren gela berritzea	00/05/8	1.591.419	Bai 1.591.419
LODOSA LODOSA	"Ángel Martínez Baigorri" IP	Larrialdietarako alarma instalatzea Gimnasioa atekak eta markesina	00/05/4 00/05/4	832.812 4.444.869	Ez Bai 5.277.681
IRUNBERRI IRUNBERRI	"San Juan" IP	Ikastetxea pintatzea, pertsianak eta patioa zorua	00/05/8	8.828.109	Ez 8.828.109
LUZAIDE LUZAIDE	IP	Ikasgela bat manpara batez banatzea	00/05/6	269.236	Bai 269.236
MARTZILLA MARTZILLA	"San Bartolomé" IP	Patio estalia eraikitzeke 2. fasea Patio estaliaren 2. faseko ordainsariak	00/05/5 00/05/5	16.146.403 1.095.147	Bai Ez 17.241.550
MENDABIA MENDABIA	IP	IPko pilotalekuko teilatuko obren bigarren fasea Barnetik pintatzea	00/05/8 00/05/8	11.797.819 1.703.042	Bai Ez 13.500.861
MILAGRO MILAGRO	"Ntra. Sra. del Patrocinio" IP	Berokuntza sistema konpontzea Leihoetan sareak jartzea 2 eta 3 urteko haurrentzako ikasgela; terrazza konpontzea, bulego berriak, pintura Liburutegiko argiteria Zementuak azpiberritzea eta pitzadurak konpontzea	00/05/8 00/05/8 00/05/8 00/05/8 00/05/8	4.068.700 1.133.900 4.235.450 1.067.200 3.335.000	Ez Ez Ez Ez Ez 13.840.250
MURCHANTE MURCHANTE	"Mardones y Angulo" IP	Igogailua jartzea, minusbaliatuentzako arranzpala, patioa zorua jartzea	00/05/5	12.229.512	Ez 12.229.512

Udala/Herria	Ikastetxea	Diruz lagundutako obrak	Eskariaren data	Eskatutakoaren aurrekontua	Emandakoa?
MURIETA MURIETA	IP	Instalazio elektrikoak, arotzeria, itzalgailuak eta berokuntza berritzea	00/05/8	942.810	Bai 942.810
NOAIN NOAIN	"San Miguel" IP	(**) IPko eta DBHko kirodegiko proiektua egiteko ordainsariak	00/05/5	14.000.000	Ez 14.000.000
ERRIBERRI ERRIBERRI	"Príncipe de Viana" IP	Arotzeria eta pintura lanak	00/05/8	1.630.982	Ez 1.630.982
IRUÑA IRUÑA	Zenbait ikastetxe	RDSiko zentralitak jartzea ikastetxe publiko guztietan	00/05/8	10.303.000	Bai 10.303.000
AZKOIEN AZKOIEN	"Juan Bautista Irurzun" IP	Haur hezkuntzako patioak zoru eta jolastokia konpontzea	00/05/5	3.458.929	Ez 3.458.929
GARES GARES	IP	Terrazoa leuntzea, kanpoko metalezko itxitura eta komunak ordeztzea	00/05/8	3.307.550	Ez 3.307.550
RIBAFORADA RIBAFORADA	IP	Beste gimnasio bat eraikitzea	00/05/4	25.994.279	Bai 25.994.279
ERRONKARI ERRONKARI	"Julián Gayarre" IP	Berokuntza instalazioa berritzea	00/05/8	8.352.000	Ez 8.352.000
SAN ADRIÁN SAN ADRIÁN	"Alfonso X El Sabio" IP	Patioak egokitzeko obrak Eskolazainaren etxebizitzako terraza ixtea Arkupeetako teilatua eta zerbitzuak konpontzea Pabilioiko teilatua konpontzea Bide hezkuntzarako eremuan hesi metaliko bat jartzea	00/05/4 00/05/4 00/05/4 00/05/4 00/05/4	3.500.000 350.000 1.000.000 1.000.000 1.220.000	Bai Ez Ez Ez Bai
SAN MARTÍN UNX SAN MARTÍN UNX	"Hermanos Brull Ayerra" IP	Lan arriskuen ebaluazioaren ondoriozko egokitze lanak	00/05/8	2.749.641	Ez 2.749.641
ZANGOZA ZANGOZA	"Luis Gil" IP "Juan Francés de Iribarren" musika eskola	Pista estalia berritzea Egokitze higieniko eta sanitarioa eta perkusio aretoa	00/05/5 00/05/5	9.171.250 19.118.290	Ez Ez
SANTAKARA SANTAKARA	"Nuestra Señora de la Asunción" IP	Berokuntzako instalazioak konpontzea Arkupea egokitzea, psikomotrizitateko aretoa izateko. Horren ordainsariak	00/05/5 00/05/5	1.597.031 6.839.279	Ez Ez
SARTAGUDA SARTAGUDA	"Nuestra Señora del Rosario"	Kristal bikoitzak jartzea eta leihoetako junturak	00/05/8	4.681.875	Ez 4.681.875
TAFALLA TAFALLA	"Marqués de la Real Defensa" IP Musika eskola	Ikastetxe barneko pintura eta kanpoko arotzeria Eskolako patioan haurrentzako jolastokiak jartzea Eskolako barrutia hesi batez bereizteko itxitura Eskolako patioan zoru konpontzea Perkusioiko ikasgelako egokitze akustikoa	00/05/5 00/05/5 00/05/5 00/05/5 00/05/8	10.259.041 1.557.880 644.270 3.724.304 3.581.811	Ez Ez Bai Bai Ez
TUTERA TUTERA	"Monte San Julián" IP	Kanpoko hesia ordeztzeko 2. fasea	00/05/5	3.923.165	Bai 3.923.165
UHARTE-ARAKIL UHARTE-ARAKIL	"San Miguel" IP	Leihoetan burdinsareak jartzea	00/05/5	1.104.380	Ez 1.104.380
UXUE UXUE	IP	Ikastetxeko teilatu berria Lan arriskuen ebaluazioa dela eta, hobekuntza lanak egitea	00/05/5 00/05/5	5.317.345 4.548.280	Ez Ez
					9.865.625

Udala/Herria	Ikastetxea	Diruz lagundutako obrak	Eskariaren data	Eskatutakoaren aurrekontua	Emandakoa?
ULTZAMA LARRAINTZAR	"Obispo Irurita" IP	Haur hezk. eta DBHrako jantokiko sukaldea berritzea	00/05/5	4.331.498	Bai 4.331.498
ATARRABIA ATARRABIA	"Lorenzo Goicoa" IP	Eskolako patioa berritzea eta horren ordainsariak	00/05/5	126.514.538	Ez 126.514.538
Batura, guztira: 1.100.673.916					

Emandako diru-laguntzen zerrenda

Udala	Diruz lagundutako obra	Aurrekontua	%	Diru-laguntza
ABLITAS	IPa eraberritzea. 4. fasea	7.961.183	65	5.174.769
ANTSOAIN	IParen ikasgelak banatzea	1.280.640	65	832.416
ARESO	Kanpoko hetsitura konpontzea, kanpoko zoladurak ordeztzea eta konpontzea	4.192.208	65	2.724.805
ARRONITZ	IParen zementazioaren oinarriak konpontzea	7.099.205	65	4.614.483
AZAGRA	Berokontza instalazioaren eraberritzea. 1. fasea	6.000.000	80	4.800.000
BARAÑAIN	Eulza IPan larrialdietako eskaileraren babesa	784.392	65	509.855
BARAÑAIN	Eulza IPko erabilera anitzeko aretoan entzute-sistema egokitzea	1.662.886	65	1.080.876
BARAÑAIN	Alaiz IPn larrialdietako ateak jartzea	2.363.008	65	1.535.955
BARAÑAIN	Los Sauces IPn komunak eraberritzea	15.512.116	65	10.082.875
BAZTAN (ERRATZU)	Arkupe aterpea eraikitzea eta jolas tokia egokitzea	6.653.498	65	4.324.774
BAZTAN (GARTZAIN)	IParen teilatua konpontzea	4.633.443	65	3.011.738
BERA	Sotoko egituraren konponketak	4.234.000	65	2.752.100
BERIAIN	Eskolako patioa eraberritzea eta zoladura ematea landaketarik gabe eta aulkiak konpondu gabe	9.268.864	65	6.024.762
BURLATA	Hilarión Eslava IPa kanpotik ixtea	3.000.000	65	1.950.000
CABANILLAS	Arkupea eraikitzea	9.176.350	65	5.964.628
CÁRCAR	Aldagelak konpontzea, fatxadako pitzadura, IParen prebentziarako konponketak	7.947.114	65	5.165.624
CORELLA	1. faseko hormaldeak konpontzea eta haur hezkuntzako eraikineko sarbideak hobetzea	8.730.452	65	5.674.794

Udala	Diruz lagundutako obra	Aurrekontua	%	Diru-laguntza
ERRO	IParen teilatu-hodiak eta zorrotzenak konpontzea	694.360	65	451.334
LIZARRA	IPko lehen solairuko komunak berritzea	10.527.766	65	6.843.048
IRURTZUN	Berokuntza instalazioa eraberritzea. 1. fasea	8.228.340	65	5.348.421
LESAKA	Eskailerako manpara ordeztea	1.476.389	65	959.653
LESAKA	IPko eraikineko egitura eta fatxada konpontzea	3.030.844	65	1.970.049
LESAKA	IPko jantokiko teilatua konpontzea	1.996.202	65	1.297.531
LEZAUN	Barneko eskailera egitea eta galdaren gela berritzea	1.591.419	65	1.034.422
LODOSA	Gimnasioko ateak jartzea eta markesina	4.444.869	65	2.889.165
LUZAIDE	Manparako ateak banatzeko	269.236	65	175.003
MARTZILLA	IPko patio estaliko eraikuntzako 2. fasea	16.146.403	50	8.073.202
MENDABIA	IPko pilotalekuko teilatuko bigarren fasea	11.797.819	50	5.898.910
MURIETA	Instalazio elektrikoa, arotzeria, itzalgailuak eta berokuntza berritzea	942.810	65	612.827
IRUÑA	RDSIko zentraliten instalazioak jartzea IP guztietan	10.303.000	50	5.151.500
RIBAFORADA	Beste gimnasio bat eraikitzea IPan	25.994.279	65	16.896.281
SAN ADRIÁN	Bide hezkuntzako eremuan metalezko hesi bat jartzea	1.220.000	65	793.000
SAN ADRIÁN	Patioak egokitzeko lanak	3.500.000	65	2.275.000
TAFALLA	Eskolako barrutia hesi batez bereiztea	644.270	65	418.776
TAFALLA	Eskolako patrioko zorua konpontzea	3.724.304	65	2.420.798
TUTERA	"Monte San Julián" IPko kanpoko hesia ordezteko 2. fasea	3.923.165	65	2.550.057
ULTZAMA (LARRAINTZAR)	Lehen Hezkuntzako eta DBHko jantokiko sukaldea berritzea	4.331.498	65	2.815.474
Batura, guztira: 135.098.903(1)				

(1) Horrez gain, lerro honen kargura kontusail hauetan hauxe ordainduko da:

Atarrabiako kiroldedia (eskolaren lehentasunezko erabilerarekin) eraikitzeke diru-laguntzaren 3 fasea, hitzarmena betetzeko, 32.000.000 pts.

Leitzako kiroldedia (eskolaren lehentasunezko erabilerarekin) eraikitzeke diru-laguntzaren 3 fasea, hitzarmena betetzeko, 15.000.000.

2gn. BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTE-TXEAK

a) Bigarren Hezkuntzako Institutua

Bera: "Toki Ona" BHla.

– Antzinako egoitza zaharberritzea. Hona jarduketa hori zertan den:

– Erabiltzen ez diren lekuak (sukaldea, jantokia eta abar) birbanatzea, irakasleentzako areto bat jartzeko eta ikastetxeak funtzionamendu zuzenerako behar dituen ikasgela berezi batzuk jartzeko.

– Teilatua aldatzea, fatxadak saneatzea, zoru batzuk konpontzea, arotzeria eta abar.

1. fasea: egiten ari da.

2. fasea: 2001eko ekitaldian egingen da.

Burlata:

"Askatasuna" BHla

– Eraikina zabaltzeko eta egokitzeko obrak bukatzea

Exekuzioa: irailean bukatuko dira obrak.

"Ibaialde" BHla

– Hesiak jarri eta ordeztzea.

1. fasea: hemendik gutxira, 2000ko ekitaldian zehar egingen da.

2. fasea: 2001eko ekitaldia

– Erabilera anitzeko aretoko proiektua egitea; bi institutuek partekatuko dute: "Ibaialde" BHla eta "Askatasuna" BHla.

Exekuzioa: obrak 2001ean hasia aurreikusita da.

Corella: "Alhama" BHla (Comboniararak)

– Patioen urbanizazioa osatzea.

Leitza: BHla

– Instalazio elektrikoa berritzea eta leihoak argiak aldatzea.

Lanak egiten ari dira, eta 2000ko urrian bukatuko direla aurreikusita da.

– Tailerra zena berritu eta 3-4 ikasgela egitea.

Exekuzioa: 2001eko ekitaldia.

Lodosa: "Pablo Sarasate" BHla

– Aldagelak egitea

Exekuzioa: 2001ean (udan)

– CEUrako tailerraren eremua handitzea

Exekuzioa: 2001/2002 ekitaldia (ahalmen ekonomikoen arabera)

Iruña:

Mendillorri:

– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) ikastetxe bat egitea hezkuntza maila horretako eskolaratze beharrei erantzuteko

Aurreikuspenen denborazko sekuentzia:

– Ikastetxe eredua eta beharren programa egituratzea: 2001. urtea

– Proiektua egitea eta obretan hasia: 2002. urtea

– Obrak bukatzea eta ikastetxea eskoletarako erabiltzea: 2003-04 ikasturtea

"Julio Caro Baroja-La Granja" BHla

– Pertsianak aldatzea

– Kanpotik margotzea

– Pista estaliaren alboko itxiturak

– Aspertsio bidezko ureztaketa jartzea eta parkea hobetzea

– Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialak egun duen eraikina egokitzea. Erakunde hori Sariora aldatuko da Eguberritan.

Exekuzioa: 2001eko ekitaldia (dena edo zati bat, aurrekontuan dirurik izatearen arabera eta lehentasunen ordenan).

"Plaza de la Cruz" BHI

– Erdi sotoko ikasgela bat eta garbitasun zerbitzuak egokitzea

– Erdi sotoko ikasgelak eta gimnasioarako sARBIDEAK egokitzea.

Exekuzioa: 2001eko ekitaldia (dena edo zati bat, aurrekontuan dirurik izatearen arabera eta lehentasunen ordenan).

"Padre Moret" BHI (Irubide)

– Aldagelak zaharberritzeko obrak

– Gimnasioetako zoruak aldatzea

Exekuzioa: 2000ko irailean.

– Suteen aurkako arauetara eta goi-tentsioko erregelamendura egokitzea.

Exekuzioa: 2001eko ekitaldia

"José María Iribarren" ikastetxea

– Eraikina handitu eta berregokitzea hartan ondoko ikastetxeak jartzeko:

– PHBHNI (Pertsona Helduen Bigarren Hezkuntzako Nafarroako Institutua)

– HOHI (Helduentzako Oinarrizko Hezkuntzako Ikastetxea)

– “Adaptación Social” BHla

Obrak egiten ari dira. 2000ko abenduaren bukaeran bukatuko dira

“Bihurdana” BHI

– Institutua handitzeko beharrei buruzko programa aztertuko da, eta Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiak zehazten duenaren menpe jarriko da Iruñean eta haren eragin-esparruan D eredu antolatzea.

– Azkoien: “Peralta” BHla

– Eraikina bi fasetan zabaltzea:

1. fasea: 2000ko ekitaldiaren bukaeran hasiko dira lanak

Amaiera: 2001eko abuztuan

2. fasea: 2002an egingen da

Zizur Nagusia

– Kiroldegi bat eraikitzea Bigarren Hezkuntzako Institutuan, Udalarekin batera.

2000ko ekainean bukatu zen; 2000-2001eko ikasturtearen hasieran jarri zen abian.

– Ikastetxeko matrikularen bilakaera jarraituko da, behar denean aurreikusitako handitzea erabakitzeke, eta handitze hori behar adinakoa izan dadin. Eraikina horretarako prestatuta dago.

b) Lanbide Heziketako ikastetxeak

Altsasu: “San Miguel de Aralar” LHko BHla

– Tailerrak zabaltzea eta berritzea.

– Fatxada eta tailerretako teilatua konpontzea

Obrak egiten ari dira, eta 2000ko abendurako bukatuko dira.

“Donapea” Lanbide Heziketako BHla

– Automozioko tailerrak zabaltzea, nabe berri bat eginda, kimikako laborategia eta biltegia.

Exekuzioa: Nafarroako Gobernuak urte anitzeko planteamendua onesteko zain dago.

Obra noizko bukatuko diren: 2001-2002ko ikasturtearen hasierarako.

Lizarra:

– Heziketa zikloetarako eraikina birmoldatzea (“Tierra Estella”-“El Puy” BHla), Lanbide Heziketa berriaren beharretara egokitzeko.

Exekuzioa: faseka. Seguruena 2001eko ekitaldian hasiko da.

Tutera: E.T.I.

– LOGSErako eraikina zabaltzea.

– Tailerrak zabaltzea eta egokitzea, eraikinen multzo zentzualan.

Exekuzioa:

Obrak hastea: 2000ko azken hiruhilekoa

Obrak bukatzea: 2001-2002 ikasturtean

Irunberri: Lanbide Heziketako Eskola

– Tailerretako teilatua aldatzea

– Tailerretako zoruak konpondu / aldatzea

Exekuzioa: 2001eko ekitaldian (udan).

– Sarrera-gela eta bulegoak berritzea.

Exekuzioa: seguruena, 2002ko ekitaldira arte itxaron beharko da.

Beste jarduketak batzuk:

Iruña: “Pablo Sarasate” Kontserbatorio berria

– Non kokatuko den zain gaude (Iruñeko Udalak esan beharko du). Hezkuntza eta Kultura Departamentuak behin baino gehiagotan eskatu dio orube bat Iruñeko Udalari, baina azken horrek ez du gai honi buruzko behin betiko erabakirik hartu.

Uharte: “Miluze” Euskaltegia

– Proiektu berria eta Uharteko “Miravalles Ikastetxeko” eraikin zentralera aldatzea, Uharteko Udalarekin Haur eta Lehen Hezkuntzako beste ikastetxe bat eraikitzeke egindako hitzarmenaren arabera.

Lekualdatzea noiz egingen den: 2001eko ekainean, behin egin beharreko egokitzapenak egin ondoren.

Tutera: “Torre Monreal” gutxitu psiko-fisikoentzako zentroa

– 3. fasea: ikasgelak, gimnasioa, tailerrak eta komunak zabaltzea.

Exekuzioa: 2001eko udan.

Gainera, era jarraian egiten zaie kasu Nafarroako Gobernuaren erantzukizun zuzenekoak diren ikastetxeetan konponketak eta mantentze-lanak egiteko jarduketari. Jarduketa horiek, asko-

tan, Ikastetxearen Antolamendurako Agirian (IAA) egindako eskarietan ageri dira. Hori guztia kasuan kasuko kontusailetan dagoen diru kopuruaren arabera.

3gn. Ikastetxeek eta udalek planteatu eta baizeko erantzunik izanen ez duten "beharren" multzoari dagokionez:

1. Udal eta kontzejuek, beren eskumenen eremuan (Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak), eginiko eskariak txosten honetan ageri direnak dira. Deialdiaren ebazpena beharra, presa eta eskarien denborazko hurrenkera bezalako irizpideen arabera egin da.

2. Ikastetxeen eskariak Inbertsioen Zerbitzuko teknikariek aztertzen dituzte, eta azterketa horre-

tan eskuhartze jakin batzuk izaten dituzte ikastetxeetako ikuskatzaileek ere. Erabakiak beharra, presa eta gainerako lehengo irizpide berak erabiliz hartzen dira, kontuan hartuta ere, kasu berezietan, Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiak eginiko plangintza. Eskariei ezezkoa emateak, beraz, zerkusia du irizpideak aplikatzearekin eta aurrekontuetan dagoen diru kopuruarekin.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko irailaren 25ean.

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Cortesko ureztatzeko ubideetan izandako zenbait isurketa librerri buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak Cortesko ureztatzeko ubideetan izandako zenbait isurketa librerri buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 6ko 69 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko irailaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Cortesko kontserba enpresa batek ureztatzeko ubideetan ustez egin dituen zenbait isurketa librerri buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1. Ba al du Ingurugiro Departamentuak isurketa horien berri?

Lehenbizi, esan behar da Ingurugiro Departamentuak egiaztatu duela Mallénen dagoela hiri-isurketa horien jatorria. Hori dela eta, herri hori Aragoiko Autonomia Erkidegoan dagoenez, aurtengo abuztuaren 4an ofizio bat igorri genion Ebroko Ur Konfederaziora, egoeraren berri emateko eta arazoari konponbidea emateko neurriak har zitzan eskatzeko. Aldez aurretik esan daiteke usain txarren iturburu nagusia hiri-isurketa horretan dagoela.

Ingurugiro Departamentuak badaki Nafarroan, gutxienez, ACICO enpresatik datozen isurketak daudela.

ACICO, SA enpresak lekadunen kontserbak egiten ditu. Egun, bere prozesuko hondakin ur industrialak, hozteko ur garbiak eta autoklabeak hozteko urak bere instalazioen inguruan dagoen ur-erretan batera isurtzen ditu. Isurketa hori jarduera sailkatuko behar den espediente izapidezterakoan lortutako jarduera-lizentziaren babesean egiten du. Espediente horrek azaltzen zuen isurketa horri solidoak bereizteko aurretratatendu bat eginen zitzaiola, eta ureztatzailen elkarteko baimen bat gehitzen zuen, non ur horiek erretenera isurtzea onartzen zen eta zenbait kutsadura-parametrotarako mugak ezartzen ziren.

Isurketa hori 1997ko urritik hona gertatu da. Hori baino lehen, ur guztiak saneamenduko udal sarera isurtzen ziren, baina udal HUAren funtzionamendu zuzenarekin bat ez zetorrenez, aipatu egunean isurketa udal hodi biltzailetik deskonektatzeari ekin zitzaion, eta ureztaketarako erretenera isurtzen hasi zen.

Argitu behar dugu isurketa honetan ez direla sartzen komunetan sortutako ur zikinak, ez baitira aurrekoekin batera bideratzen.

2. Horien berri baldin badu, zer egin du isurketak ikuskatu, kontrolatu eta haien jarraipena egiteko? Noiz? Zein izan dira jarduera horien emaitzak? Zer agindu eman dira? Zer neurri hartu dira?

ACICOn isurketei dagokienez, Ingurugiro Departamentuak 1994tik hona enpresa horren amaierako isurketako laginak aztertu dituela, haien kalitatea kontrolatzeko.

1997ko urrian, departamentu honetako teknikariak enpresa horretara ikuskatzeko bisitan joan ziren, jardueraren garapena eta hondakin urak birgatzera.

Departamentu honetako Zaintzako langileek berriki isurketa ur-erretenera egiten den lekua ikuskatu dute.

1998ko martxoaren 5ean, Ingurugiro Departamentuko Ingurugiro Kalitatearen zerbitzuruak enpresari eskatu zion behar ziren neurriak har zitzan bere isurketen kalitatea jarduera-lizentzian ezarritako mugetara egoki zitzan, muga horiek gainditzen ari baitziren.

Departamentu honetako Ingurugiro Kalitatearen zerbitzuruak, 1999ko apirilaren 29ko idatzi batez, Ebroko Ur Konfederazioak enpresak berak erakunde horretan aurkeztu zuen azterlan tekniko bat ontzat eman zuen, ubide publikora isurtzeko alde aurretik behar zen baimena lortzeko. Txosten horrek ur zikinetarako —ureztatzeko erretenera isuri baino lehen— araztegi bat egiteko proiektua ere eranstu du.

2000ko martxoaren 24an, Ebroko Uren Komisarioak behin behineko baimena eman zuen hondakin urak ureztatzeko erretenera isurtzeko, eta ACICO, SA Kontserbak enpresako isurketak erre-

gularizatzeko plana onetsi zuen, baldintza baka-
rrekin: araztegia eraikitzeke plantako obrak 12
hilabeteren buruan bukatzea. Beraz, aurreikusita
dago instalazio hori 2001ean hasia zerbitzua
ematen.

3. Isurketa horien berririk ez badu, noiz pen-
satzen du ikuskatzea eta kontrola egitea? Zer
neurri hartzeko asmoa du?

Aurretik emandako erantzunean jasota dago.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parla-
mentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta
ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko irailaren 23an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta
Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui
Ros

Toki entitateen egintzak eta erabakiak kontrolatzeko mekanismoei buruz- ko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan
ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés
Burguete Torres jaunak toki entitateen egintzak
eta erabakiak kontrolatzeko mekanismoei buruz
egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak
emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizia-
lean argitara dadin agindu da. Galdera hori
2000ko irailaren 6ko 69 zenbakiko Nafarroako
Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko irailaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parla-
mentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés
Burguete Torres jaunak galdera egin du toki enti-
tateen egintzak aurkatzeko Nafarroako Gober-
nuak dauzkan ahalmenen erabilera arautzen duen
6/1990 Foru Legearen 346. artikulua aplikazioari
buruz.

Toki Administrazioaren kontseilariak ondoko
erantzunak igorri ditu:

1.- Nafarroako toki entitateen zenbat egintza
eta erabaki aurkatu ditu Toki Administrazioaren
arloan eskumenak dituen Foru Komunitateko
Administrazioaren organoak, 1998, 1999 eta
2000. urteetan?

Hona aipatu urteetan aurkaturiko egintzen eta
erabakien kopurua:

1998an, ez zen aurkaperik batere aurkeztu
Administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioan.

1999an ez zen aurkaperik batere aurkeztu
Administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioan.

2000ko abuztura bitartean, 2 aurkaperik aurkez-
tu dira.

2.- Zenbat toki entitatei eskatu zaio bere egin-
tza eta erabakiei buruzko informazio gehiago
eman dezan, Nafarroako Toki Administrazioari
buruzko Foru Legearen 345.2 artikuluan ezarrita-
koari jarraituz?

Toki entitateei informazioa zabaltzeko eginiko
eskariak administrazio espediente bera irekitze-
ko agiriak aurkeztearekin hasten diren espedien-
teetako bakoitzean gertatzen dira. Eskari horien
zenbatzeak urtero izapideturiko ehunka espedien-
te berrikusteko beharra sortuko luke, hain zuzen
ere informazio gehiago eskatu den eskarien kopu-
rura zehaztu ahal izateko.

3.- Uste al du Nafarroako Gobernuak Toki
Administrazioari buruzko Foru Legeak legezkota-
suna kontrolatzeko ezartzen dituen mekanismoak
gehiegizkoak eta premiagabekoak direla?

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru
Legearen legezkotasuna kontrolatzeko mekanismo-
ak Estatuko oinarrizko legeditik datoz. Estatuak,
izan ere, bere arauetan toki entitateen egintzen
legezkotasuna kontrolatzeko sistema berdinak
ezartzen ditu.

Aurrekoa gorabehera, Nafarroako toki entitate-
etako jarduketan berrikuspena aplikazio juridikoko
irizpide zehatzen arabera egiten da, eta justizia
epaitegien eskuetan geratzen da auziaren azken
erabakia. Nafarroako Gobernuak ez du aukerarik
udal erabakiaren indarra eteteko klausulak aplika-
tzeko.

Horrenbestez, beharrezko eta egoki dirudi kon-
troleko sistema orokorrari eustea, bidea ematen

baitu toki entitateen egintza eta erabakien administrazio berrikuspena egiteko.

Toki Administrazioiko kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Nafarroako Oihan Planari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Nafarroako Oihan Planari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 6ko 69 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko urriaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Oihan Planean 1999. urtean exekutatzeko aurreikusitako neurriei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1. "Oihan eskolak-Enpresak eta elkarteak" izeneko fundazio bat sortzea Oihan Planeko 841. helburuan sarturiko dago.

1999an egiteko aukera aipatu bazen ere, ez da aurten gauzatu. Hala eta guztiz ere, aipatu beharrekoa da Forespir eta Eurosilvasur bezalako Europar Batasunaren programen bitartez, oihantant ikerketa eta garapen arloko lanak egiten ari direla, eta lan horietan Foru Komunitateko enpresa, elkarte eta erakundeek ere esku hartzen ari direla.

2, 3, 4, 5, 6. Oihan Planeko neurri horiek guztiak lege mailakoak dira, eta batean bil daitezke: Oihan Planean onetsitakoa aplikatzeko lege indarduna aldatuko luketen mendiei buruzko legeen multzo bat prestatu eta argitaratzea.

Oihan Planeko jendaurreko informazioko epeak zabaltzeak haren aplikazioa geroratu zuen. Plana 1998an aplikatzen hastea aurreikusi bazen ere, 1998ko abenduan onetsi zen.

Horrek berekin ekarri du plan osoaren aplikazioak urtebeteko atzerapena izatea.

Lege neurriei dagokienez, gogoratu behar da Parlamentua 1999ko martxoan desegin zela, eta 1999ko irailetik aurrera hasi zirela kontseilariak beren inbestidura hitzaldiekin. Horrek esan nahi du urtebete baino gutxiago izan dugula foru lege proiektu berri bat prestatzen joateko.

Kontuan harturik orain Naturguneei buruzko 9/1996 Foru Legearen eta Habitategi buruzko 92/43/CEE zuzentarauaren artean planteatu diren arazoak, Batasunarentzat Ardurazko diren Toki (BAT) gisa proposatu eta aldi berean Nafarroako legeek gune babestu gisa aitortu dituzten leku horietarako kudeaketa araubide kontraesankorra sartu baita. Gainera, kontuan hartu behar da Batasunarentzat Ardurazko diren Tokien (BAT) % 75 mendiak direla, eta horrek emendiozko zailtasunak ekarri dizkiola lege berriak egiteko proiektu honi.

Hala eta guztiz ere, espero izatekoa da 2001eko udaberrirako prest egotea.

7. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren asmo bat da oihan museo bat egitea, dauden material, liburutegi, azterlan eta datu-baseei buruzko informazio zabalarekin.

Elkarrizketak izan ditugu zenbait enpresa eta pertsonarekin, museo hori non jarri erabakitzeko, baina oraindik ere ez dago proiektu zehatzik.

8. Basabideei buruzko planak antolamendulanean arabera, hau da, mendiz mendi egiten dira. Behin antolamendu-lan guztiak bukatzen direnean, haiek hierarkizatzeke behin betiko plan hori egiteko moduan egonen gara.

9. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak eskualdeetako suteei aurre egiteko kasuan kasuko planak idatzi ditu. Haietan, besteak beste, egin beharreko bide eta basabideen beharrak jasotzen dira, bai eta haien sailkapena ere, garrantziaren eta lehentasunen arabera.

10. Toki Administrazioiko Departamentuak egoki jotzen duen unean.

11. Nire ustez, Nafarroako Gobernuaren politika da hori, ez hertsiki departamentu honena.

Oihan hondakinak biltzeari dagokionez, esan behar da egun hondakin horiek ez dakartela onurarik lan eskuak kostu handia duelako, eta, beraz, ez da egun energia lehiakorra.

Hala eta guztiz ere, Nafarroako Gobernuak Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuaren bitartez egiten ari den Energi Plan berria hori aintzat hartzen ari da.

Egun departamentuak dauzkan giza baliabideekin, zaila da Oihan Planean proposaturiko helbu-

ru guzti-guztiak lortzea. Hala eta guztiz ere, lanean jarraitzen dugu proposaturiko helburuak betetzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko irailaren 23an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

I saila:
PARLAMENTUKO JARDUERA

2000ko abenduan egindako bilerak

MAHAIA

1 eta 14an.

MAHAIA ETA BOZERAMAILEEN BATZARRA

4, 11, 14, 18, 20 eta 27an.

OSOKO BILKURA

21ean:

– Etxebizitza arloko jarduketa babesgarriari aplikatuko zaizkien moduluak eta babes publikoko araubideko etxebizitzaren gehieneko prezioak ezartzen dituen Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea. Zuzenketak Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak eta Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztu dituzte.

– Sarrigurengo udalez gairikiko planeamendu sektorialak ukituriko eremua urbanizatu eta eraikitzekeo prozesua arautzen duen Foru Lege proiektua dela-eta Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

